

Petra joskiña

rain, zorionez, hala ezpada be, sasue bateko emakumiendako josten ikastia izaten zan gauzarik inportantienetakua. Ezkonketan ziranerako, etxeko erropen premiñazko konponketak egitten behintza jakin bihar izaten euen. Eta ondo ikasi ezkeru, etzan joskintzaian jarduteko aukeria be baztertu bihar. Joskin batzuk etxerik etxe ibiltzen ziran eta beste batzuek, berriz, euren tailler edo obradoria eukitten euen.

Ikasi ahal izateko, nork erakutsi be topau bihar izaten zanez, herri hazitxuetan maistra bat baiño gehixago egoten zan zeregin horretarako. Oñatin be etzan erakuslerik falta, jakiña. Gaurko argazkixan gerra aurreko maistra horreittako bat dakartzuegu: **Petra joskiña**. Zubillagako Arotzena baserriko alaba honek Kale Zaharreko 44. numero etxiaren behealdian eukan bere lanlekua, Gerra eta Zabarteren etxien bittartian.

Fotografixan ikusten dogun kuadrillatxua tailler horren etxeostian dago, hain zuzen be. Irakaslia bere ikaslekin agerketan xaku, ofiziuari dagokixon tresna eta elementuak inguruan dittuala: josteko makiña, *Singerra* seguru asko, joskin-tablia, manikixa eta abar. Argazkixak larogeita lau bat urte izan leike eta honeik dira bertan ezagutu dittugunak. Ezkerretik eskumara;

**Aurrian:** Zañartuko *Zuazola* baserriko alabia; Madalenako *Anduaga* baserrikua (?); Jeronima **Kortabarria**, Zubillagako *Matromaikua*; Maria (?), Larrañako *Mendiolatzena* edo *Alejonekua*; X. X.; Petra **Igarzabal** maistra; Sabina **Larrañaga**, Petraren alabia; X. X.; Regina **Larrañaga**, hau be joskin-irakasliaren alabia;

**Atzian:** Martxelin **Biaín**, *Kanpantxokua*; Periko kotxeruaren alabia; eta Juli **Egaña**, Goribarko *Errotabarrikua*.

Fan dan hilleko argazkixan, plazako neskaitilen eskolakuan, ikasle bat geratu zan identifikau barik, baiña Mari Sol Altuna eta Axun Arzuagari esker Elena **Altuna** zala jakin dogu. Ia orainguan be hutsunak beteten baten batek lagunketan doskun.

Fotografixia Pilar Barrenak eskuratu dosku; argibidiak Pilarrek berak eta Manttoni Egañak.

J. E.



# OÑATI

## Hormigoiak, S.A.

Zubillaga auzoa, z/g (Olano) Tfnoa: 78 29 12  
OÑATI

